

Hogei ilargi gehiago Saturnoren inguruan

Subaru teleskopioaren bitartez (Mauna Kea, Hawaii), orain arte ezagutzen ez ziren beste hogei ilargi aurkitu dituzte Saturnoren inguruan. Horri esker, Saturno bilakatu da ilargi gehien dituen eguzki-sistemako planeta. Orain arte, Jupiter zen gehien zituena: 79. Saturnok, berriz, 20 berri horiek gehituta, 82 ditu.

Aurkitu dituzten horiek 5 km-ko diametroa dute, gutxi gorabehera; 17k planetaren errotazioaren aurkako noranzkoan orbitatzen dute, eta gainerako hirurek noranzko berean. Astronomoen esanean, ez ziren planetarekin batera sortu; grabitazio-eremuak gerora harrapatutako gorputzak dira, eta eguzki-sistemaren sorrerari buruzko informazio interesgarria ematen dute.



Saturnoren bi ilargi eta eraztuna, Cassini zundaren bidez. ARG.: NASA/JPL-Caltech/Espazioko Zientzien Institutua.

Saturnoren kanpoaldeko ilargiak hiru multzotan banatzen dira, orbitaren planoarekiko inklinazioaren eta distantziaren arabera: Inuit, Galikoa eta Nordikoa. Orain aurkitu dituztenak hiru multzotakoak dira, nahiz eta Galikoan sartu duten bakarra nahiko desberdina den aurretik zeudenekiko. ●

Sare sozialetako mezuen sentimendua erazteko sistema eleaniztuna

Euskarazko iritzi-erazketan aitzindaria den lan bat garatu du Iñaki San Vicente Roncal Elhuyarreko ikertzaileak bere doktorego-tesian. Eta, tesian garatutako teknologia oinarri hartuta, euskarazko sare sozialetako mezuen polaritatea edo sentimendua hautemateko lehen sistema sortu du Elhuyarreko I+G unitateak, lau hizkuntzatan: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa. Eta, gainera, publiko jarri du.

Lehen pausoa polaritate-lexikoak sortzea izan zen; hau da, berez sentimendu positiboa edo negatiboa duten hitzen zerrendak osatzea. Hori egitean, kontuan izan behar da, testuinguruaren arabera, hitz berak polaritate desberdina izan dezakeela. Esate baterako, salmentak jaistea txarra da; aldiz, langabezia jaistea, ona. Bestalde, Twitterren berezko idazkera informalak ere sortzen ditu arazoak. Eta, horrez gain, partikula indartzaileak eta murriztai-leak daude: oso, gutxi, agitz, erabat... Behin lexikoa osatuta, lexiko hori ikasketa automatikoko sistemetan integratzea izan da hurrengo pausoa.

Euskarazko sailkapenaren asmatze-tasa beste hizkuntzetan izaten denaren parekoa izatea lortu du: % 75 inguru. Gainera, hasiera batean sistemak testu idatzietako iritziak soilik erazten bazituen ere, orain gai da bideoak eta audioak ere aztertzeke eta haietan dauden iritziak hautemateko.

Sistema aurreratu hori dagoeneko erabili da aplikazio errealetan. Ikerketa-lana Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldearekin elkarlanean egin da, eta emaitzak eskura daude Elhuyarren Hizkuntza Teknologien webgunean (hizkuntzateknologiak.elhuyar.eus). ●



Albiste gehiago,
webgunean